

Asis'tar Prantzizko Deuna

1226 - 1926

Gizon txiroa, apal, otzana,
agertu zan bein luñean,
gogofkeri ta andi ustea
nagosi ziran aldian.
Giza biotzak, izoztuta lez,
urê zalez gogofuta,
bizi zirean alkafen kaltez,
krista' legeaz aztuta.

Zoñeko za'ra, loka'ri latzaz
garian, inguraturik,
Yaungoiko eta geidearentzat
maitasun ga'ez beterik,
Asis aldean dabil Prantzizko
gizon apal ta otzana,
giza biotzak goikoaz bera
zuzendu bea' euzana.

Asa'etuta egozneri
esaten dautse: «¡Anayak!
Goiko Aitaren seme zarie;
amaitu zeuen zemayak».
«Alka' maitetu — diñoku Aitak —
eta maitetu biotzez,
nai ba'dozue bizi gentzaz ta
goro betiko zorunez».

«A'okeria yaurti betiko
gogoz zeuen biotzetik,
gaiztakerien itufi da — ta
aldendu bere bidetik.
«Agintaritza otseintza da — ta
agindu apaltasunez;
orixe da ba bide zuzena
Gure Yaunak diñoskunez.



«Ondasunaren izena dauna
Ondamendien sustaía
 dalako, maite goi-ondasunak
 an dago zorun bakaña».
 Onexek dira itz ta egitez
 Prantzizko'n irakatsiak,
 auxe diñoie bere soñeko
 Kristo'ren zauri biziak.

Oneixen bidez maitasun - gentza
 erein eban biotzetan,
 Kristo'ren usain gozo, goitaía
 zabaldu efi danetan...
 Goíoton orde z maitetasuna
 asaíe orde z bakea,
 toki danetan dakus Prantzizko'k
 nagosi Kristo'n Legea.

Eta izaki maitaíe zanak
 (gustientzat zan Anaya),
 maitasun gaíez urtuta legez,
 dakus uíean amaya.

Eta orduan zauritutako
 besoak zabal-zabalik,
 bere «Aíeba Eriotzari»
 diñotso pozez beterik:
 «Ene *Aíeba* maite-maitea
 zu zara nire laguna,
 zure bitartez besaítetukot
 ointxe neure Yaun kutuna».

Saspireun urte dira; itz oneik
 Asis uriko txoriak
 entzun ebezan; eta dirudi
 gaur diñoela gustiak:
 «Gure Anaya nagosi zana
 yoan zan ludi ontatik
 bere argia gizaldi oro
 bialtzeko zero goitik...»



AITA PRANTZISKO

Gizon argal bat txiki xamaña
Oraindik ez oso zaña

Eta soñean zaku baldaña
Ta arpegian bizaña.

Sokañitxo bat korapilduta
Geñia dauka lotuta

Esku ta oñak zaurituta
Gorputz guztia aulduta.

Asis aldean oso apalki
Eskean dabiñ poliki

Danentzat maite-maiteki
Begiak beruntz dabizki.

Nor ote-degu gizontxo ori?
Efukitutzen zait neri.

Etzaiozula galde ñori
Bakañ-bakañik berari.

Nor zera gizon? ;Kristo al zera?
Nator zuri galdetzera

Bada zu zabiltz bere antzera
Esazu ala bazera.

«Ni naiz gizonik ezer-ezena
Ni naiz danen arlotena

Ludi guztian ni naiz azkena
Ni naiz obenlariena».


Zaude ixilik ;ene gaxoa!
Zu zera oso zintzoa

Zuk dirudizu arkumetxoa
Zu zera ezti goxoa.

G.

Gaztetasuna

¡Gaztetasuna!
¡Gaztetasuna!,
Ames gozoen adiña!,
Adiñ ederra!
Ezin ohea,
Ule zuridun ba'ziña!



Etorkizuna
begi aurrean,
adimen-biotza pil-pil,
irudimenak
ara ta ona,
noraeezan zarabil.

Len izan dana,
geyago barik,
zuretzako ezegarri,
Oingoa onen,
besterik barik,
Geroa, beti pozkarri.

Eguzki sortu-
barrien antzez,
dana argi ta diz-diza,
zuk ez dakizu
ondifio zer dan
odei-baltz eta ekaitza.

Baña barruan
ikusten zaitut
artega eta urduri...
esan eidazu:
¿Zer da zureztat
artegatasun-iturri?

¿Zergaitik dana
artu gurarik
zure beso zabaletan?


¿zergaitik beti
adimen ori
yakin-gura bizietan?

¿Zergaitik zure
maite-yorana
ezerk be ez dau asetzen?
¿zergaitik beti,
beti gorago!
biotzak dautzu esaten?

Zure oin bizkor,
neka-eziñak,
beti dabiltz aldatz billa
¿zergaitik beti
ain maite yatzu
mendi goyenen erpiña?...

¡Gaztetasuna!
ames-adiña!
Bizi, indar, bultz, nastea...
"Yo ta uts" einda
ikusikozu
non dan bizitzan egia.

Erdi egi ta
aurrera zure bidean...
usterik barik
aurkitu arte
bizitzaren arratsean.



¡Gaztetasuna!
bizi, indar, bultz,
ames gozoen adiña!
Yaunaren emaitz
bardingabea,
ule zuridun ba'ziña.

Manterola'tar Gabir



ARANTZAZU'KO AMARI

Arantzazu'ko Amatxo,
lili arantzartean,
zure yarlekua dozu
Euskal-Erri erdian.

Zure semeok bizitzan
naigabez ikusirik,
autu ete zeikian ba
yarleku obagorik?

Aitz-erpin ta troka sakon
arantzaz ingurauta,
or gabiltz estu ta larri,
sarritan lurra yota.

Baña begiak yasorik
or zakust gure Ama
gizon danori eskeintzen
Bake ta Zoriona.

Uste osoz ba Zugana
gatoz laguntza eske,
goiko eskarrik barik ba
ezer be ezin geinke.

Zu zara euskaldunontzat
egizko Artizarra,
gaurko naspil guztietan
itxaropen samurra,
biotzez maitetu daigun
Zure Seme maitea,
guretzat bera dalako
Bide, Egi, Bizia.

Manterola-tar Gabirel
Arantzazu'n 11-IX-71'gn